VI. KUDEAKETA, EPEAK ETA ORDAINTZEKO MODUA

**6. artikulua**

Zerbitzua ematen den unean bertan likidatu eta ordainduko dira tasak. Hala ere, Bizkaiko Garraio Partzuergoak zilegi izango du eskaera erregistratzen duenean tasa likidatzea eta ordain dadila eskatzea.

Tasak ordaintzeko eskudirua eta kreditu-txartelak erabili ahal izango dira horretarako egokitutako lekuetan. Hori gorabehera, etorkizunean baliteke ordaintzeko beste modu batzuk onartzea.

Ordenantza honetan ezarritako tasak eskatu ahal izango dira bai eragiketa garraio-sistemaren sareko edozein lekutan egiten denean bai sistema horretatik kanpoko sarean (estankoak, kioskoak, saltokiak, internet eta abar) egiten denean, ezertan ukatu gabe etorkizunean eragiketa beste leku batzuetan ere egiteko aukera.

Ordenantza honetan ezarritako tasak ezingo dira ordaindu Barik txarteleko diru-tituluen saldoaren kargura.

VII. AZKEN XEDAPENA

**ORDENANTZA HONEN ONESPENA ETA INDARRALDIA**

2016ko abenduaren 19an Bizkaiko Garraio Partzuergoko Kontseilu Nagusiak hartutako erabakiaren bitartez Ordenantza honetan egindako aldaketak ondoren zehazten den moduan jarriko dira indarrean:

2017ko martxoaren 1ean modu bakarreko Gazte tituluei, Bidai 50, Bidai 70, Gazte 70, Bidai Oro eta Gazte Oro tituluei dagokienez ezarritakoa.

2017ko apirilaren 1ean Bizkaiko Garraio Partzuergoaren bidaia bakarreko eta diru-zorro tituluei dagokionez ezarritakoa.

Indarrean jartzeko data horiek metroko 3. linea martxan jartzeko aurreikusitako dataren (2017ko apirilaren 1a) arabera ezarri dira. Beraz, linea hori martxan jartzeko data aldatzen baldin bada, aldaketak indarrean jartzeko data ere denbora tarte berean atzeratuko litzateke. Kasu horretan, Kudeaketako Zuzendaritzak indarrean jartzeko data berriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko ditu, baita Bizkaiko Garraio Partzuergoaren webgunean ere.

Bilbon, 2016ko otsailaren 16an.—Zuzendari Nagusia, Manu Tejada Lambarri

(II-746)

VI. GESTIÓN, TÉRMINOS Y FORMA DE PAGO

**Artículo 6**

La liquidación y pago de las tasas se practicará simultáneamente a la prestación del servicio, no obstante el Consorcio de Transportes de Bizkaia podrá liquidar y exigir su pago al tiempo de ser registrada la petición.

Para el pago de dichas tasas, se admitirá dinero en efectivo y tarjetas de crédito en los puntos habilitados al efecto, sin perjuicio que en el futuro quepa admitir otras formas de pago.

Las tasas establecidas en esta ordenanza son exigibles tanto si la operación se efectúa en cualquier punto de la red del sistema de transporte como en la red externa a dicho sistema, (estancos, quioscos, locales comerciales, internet, etc.), sin perjuicio de otros puntos en que puedan ser realizada en el futuro.

Las tasas recogidas en esta ordenanza no podrán pagarse contra el saldo de los títulos monedero contenidos en la tarjeta Barik.

VII. DISPOSICIÓN FINAL

**APROBACIÓN Y VIGENCIA DE ESTA ORDENANZA**

Las modificaciones introducidas en la presente Ordenanza mediante acuerdo del Consejo General del Consorcio de Transportes de Bizkaia de 19 de diciembre de 2016 entrarán en vigor conforme se expresa a continuación:

Lo establecido respecto de los títulos Gazte monomodales, Bidai 50, Bidai 70, Gazte 70, Bidai Oro y Gazte Oro el día 1 de marzo de 2017.

Lo relativo al título ocasional y a los títulos monedero del Consorcio de Transportes de Bizkaia el día 1 de abril de 2017.

Tales fechas de entrada en vigor se establecen en función de la fecha prevista para la puesta en marcha de la línea 3 de Metro, fijada para el 1 de abril de 2017. Por lo que si se modificase la puesta en marcha de dicha línea, la entrada en vigor de las modificaciones se pospondría por el mismo lapso temporal, procediéndose por la Dirección Gerencia, en tal supuesto, a la publicación de las nuevas fechas de entrada en vigor de las mismas en el «Boletín Oficial de Bizkaia» y en la página web del Consorcio de Transportes de Bizkaia.

En Bilbao, a 16 de febrero de 2017.—El Director Gerente, Manu Tejada Lambarri

(II-746)

•

**«Barik txartela eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren garraio-titulu komunak araupetzen dituen Ordenantza»ren testu osoaren iragarkia.**

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren kontseilu nagusiak 2016ko abenduaren 19ko batzarrean hasieraz onartutako «Barik txartela eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren garraio-titulu komunak araupetzen dituen Ordenantza»ren aldaketaren behin betiko onespena gauzatuta, honen bidez ordenantza horren testu osoa argitaratzen da aldaketa horiek sartuta.

**Anuncio de publicación del texto completo de la «Ordenanza reguladora de la tarjeta Barik y de los títulos de transporte comunes del Consorcio de Transportes de Bizkaia».**

Habiéndose aprobado definitivamente la modificación de la «Ordenanza reguladora de la tarjeta Barik y de los títulos de transporte comunes del Consorcio de Transportes de Bizkaia» aprobada inicialmente mediante acuerdo del Consejo General del Consorcio de Transportes de Bizkaia adoptada en sesión celebrada el día 19 de diciembre de 2016, por la presente, y una vez incorporadas dichas modificaciones, se procede a la publicación del texto completo de la referida ordenanza.

## BARIK TXARTELAREN ETA BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOAREN GARRAIO TITULU ERKIDEEN ERABILERA ARAUTZEKO ORDENANTZA

ZIOEN AZALPENA

Barik txartelak garraio-tituluak ekar ditzake barruan eta garraio-titulu bat baino gehiago bil daitezke bertan. Hori dela eta, edukitzailea nahiz edukia egoki erabiltzeko baldintzak arautu behar dira, erabiltzaile orok jakin beharreko arauak ezartzeko helburuz.

Partzuergoan bildutako bidaia-tituluak Creditrans-ekin sortu ziren 2000. urtean. Handik hona, beste titulu batzuk merkaturatu dira, hala nola Gizatrans, Hirukotrans eta Gazte. Horiek guztiak Barik txar-

## ORDENANZA REGULADORA DE LA TARJETA BARIK Y DE LOS TÍTULOS DE TRANSPORTE COMUNES DEL CONSORCIO DE TRANSPORTES DE BIZKAIA

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La tarjeta Barik es un contenedor de títulos de transporte en el que puede convivir más de un título, resultando necesaria la regulación de las condiciones de uso tanto del continente como del contenido para el establecimiento de reglas de general conocimiento.

Los títulos de transporte consorciados nacieron en el año 2000 con el Creditrans. Desde entonces se han incorporado otros títulos al mercado, Gizatrans, Hirukotrans, Gazte todos ellos están inte-

cve: BAO-BOB-2017a039

telean txertatu ziren 2012ko azken hiruhilekoan, txartelaren merkaturatze masiboa egin zenean, hain zuzen ere.

Barik txartelak arrakasta handia lortu du herritarren artean eta, horren ondorioz, garraioaren arloan eskumenak dituzten erakundeek akordioak lortu behar dituzte hala partzuergo araubidean titulu berriak sortzeko, erabiltzaileen eskura jartzen diren tituluen eskaintza zabalduz euren beharrizanetara ondoen egokitzen dena hautatzeko aukera izan dezaten, nola txartelak erabiltzeko esparru geografikoa zabalduz, hau da, txartel horiek jaulkitzen dituen Lurralde Historiko hori gainditÂuz. Inkorporazio horien ondorioz erregulatu egin behar diren jarduteko arauak behar dira eta, batzuetan, beharrezkoa izaten da prezio publiko berrien ezarpena.

Ordenantza honen xedea da Barik txartelaren erabilera eta Bizkaiko Garraio Partzuergoak (aurrerantzean, BGP) dauzkan garraio-titulu erkideen erabilera arautzea.

I. KAPITULUA

**XEDEA**

### 1. artikulua.—*Xedea*

Barik txartela Bizkaiko Garraio Partzuergoaren euskarria da: txartel horretan bil daitezke sistemari atxikitako garraio moduetan erabil daitezkeen garraio-tituluak.

Ordenantza honen xedea da Partzuergoan bildutako tituluen funtzionamendua arautzea eta horien arteko interakzioa lortzea Barik txartelean, baita txartela erabiltzeko baldintzak araupetzea ere.

Ordenantza honetan azaldutakoa hobeto ulertzeko, «Definizioak» dokumentua gehitu da 2. eranskin gisa.

II. KAPITULUA

**SUBJEKTUAK**

### 2. artikulua.—*Arautzearen eremu subjetiboa*

Ordenantza hau Barik txartelaren eta BGPren bidaia-tituluen erabiltzaile guztiek bete beharko dute, baita beste lurralde historiko batzuetako txartel gonbidatuak dituzten erabiltzaileek ere, horiek eragingarriak badira.

III. KAPITULUA

**BARIK TXARTELAREN APLIKAZIO-EREMU OBJEKTIBOA**

### 3. artikulua.—*Aplikazio-eremua*

Barik txartela Bizkaiko garraio publikoko garraio-sarean erabil daiteke, baita beren beregiko hitzarmenak eta akordioak dauden mugako lurraldeetan ere.

Barik-en sare osoak euskarri egokia emango dio txartelaren erabilera egokiari (eskuratzea, karga, baliozkotzea, bezeroaren arreta, gorabeherak, etab.), txartelak dakartzan jabeen tituluetan izan ezik. Halakoetan, titulua eman duen erakundea izango da erantzulea.

Barik txartelarekin egiten den bidaia bertan bildutako tituluei dagozkie soilik, titulu bakoitzean erabil daitezkeen garraio moduak eta bidaiatzeko zonak zehazten dituzten tituluei, garraio zerbitzuak sisteman txertatu izanaren ondorioz. BGPk emango du argitara Barik txartela erabil daitekeen sare hori.

IV. KAPITULUA

**BARIK TXARTELEAN TXERTATURIKO DIRU-ZORRO MOTAKO PARTZUERGO-TITULUAK**

### 4. artikulua.—*Creditrans garraio-tituluaren funtzionamenduaren ezaugarriak eta baldintzak*

Ezaugarriak

BGPk garraiorako emandako diru-titulu erkidea da. Horren bidez, saldoa eskuratu eta erabiltzen da sisteman txertaturiko garraio moduetan bidaiatzeko, tarifa murriztuarekin. Bidaiak egin ahala deskontatzen da saldoa, tarifa aplikatuta. Erakunde eskudunak edo,

grados en la tarjeta Barik, soporte cuyo lanzamiento masivo tuvo lugar en el último trimestre de 2012.

La buena aceptación de la tarjeta Barik por parte de la ciudadanía propicia que las instituciones con competencia en materia de transporte alcancen acuerdos tanto para la creación de nuevos títulos consorciados, aumentando la gama de títulos a disposición de los usuarios para que éstos escojan el que mejor se adecúe a sus necesidades como para la ampliación del ámbito geográfico de utilización de las tarjetas, más allá del propio del territorio histórico emisor de las mismas. Estas incorporaciones conllevan normas de funcionamiento que también debe ser regulado y que a veces se traducen en la introducción de nuevos precios públicos.

Esta ordenanza tiene por objeto la reglamentación de la utilización de la tarjeta Barik y de los títulos de transporte del Consorcio de transportes de Bizkaia (en adelante CTB) que tienen carácter común.

CAPÍTULO I

**OBJETO**

### Artículo 1.—*Objeto*

La tarjeta Barik constituye el soporte del CTB que permite incluir en la misma los títulos de transporte que son susceptibles de ser usados en los diferentes modos de transporte adheridos al sistema.

Constituye el objeto de la presente ordenanza la regulación del funcionamiento de los distintos títulos consorciados y la interacción entre ellos en la tarjeta Barik, así como las condiciones de uso de la misma.

Para mejor comprensión de lo expuesto en la ordenanza se adjunta como anexo 2 el documento «Definiciones».

CAPÍTULO II

**SUJETOS**

### Artículo 2.—*Ámbito sujetivo de la regulación*

Están sujetos a esta ordenanza todos los usuarios y usuarias tanto de la tarjeta Barik como de los títulos de transporte del CTB, así como los usuarios de tarjetas invitadas de otros territorios históricos en situación de interoperabilidad.

CAPÍTULO III

**ÁMBITO OBJETIVO DE APLICACIÓN DE LA TARJETA BARIK**

### Artículo 3.—*Ámbito de aplicación*

La tarjeta Barik puede ser utilizada en la red de transporte público de Bizkaia, así como en los territorios limítrofes en los que existan convenios y acuerdos específicos al respecto.

Toda la red Barik dará soporte al adecuado uso de la tarjeta (adquisición, recarga, validación, atención al cliente, incidencias,…), salvo en el caso de títulos propietarios contenidos en la tarjeta de los que responderá la entidad emisora del título.

El viaje con la tarjeta Barik está limitado a los títulos contenidos en la misma, que son los que determinan las zonas donde se puede viajar y los modos de transporte utilizables con cada título, en virtud de la integración de los servicios de transporte en el sistema. Esta red, donde la tarjeta Barik es susceptible de utilización, será hecha pública por el CTB.

CAPÍTULO IV

**TÍTULOS DE TRANSPORTE CONSORCIADOS DE TIPO MONEDERO EN LA TARJETA BARIK**

### Artículo 4.—*Características y condiciones de funcionamiento del título de transporte creditrans*

Características

Título de transporte monedero común emitido por el CTB con el que se adquiere y dispone de un saldo para viajar en los distintos modos de transporte integrados en el sistema, a una tarifa reducida. Este saldo se va descontando a medida que se realizan los

cve: BAO-BOB-2017a039

hala badagokio, BGPk ezarritakoak dira bidaiak egiteko kobraturiko tarifak.

BGPk Creditrans erkidearen tarifak onar ditzake eta atxikitzea erabakitzen duten garraio moduetarako berdinak izango dira. Tarifak BGPren tasak arautzeko zerga ordenantzan argitaratuko dira. Tarifak aplikatzeko moduak, ordea, BGPk iragarriko ditu.

Edozeinek erabil dezake txartela baldin eta txartel anonimoan bilduta badago eta, beraz, besterengarria da.

Elkarrekin titulu berarekin bidaiatzen duten hainbat pertsonak erabil dezakete, betiere txartel anonimoan kargatuta badago.

Txartel pertsonalizatuan sartuta badago, ezin erabil dezakete hainbat pertsonak elkarrekin, eta ezin izan daiteke besterengarria, bakarrik txartelaren titularrak erabil dezake

Garraioa aldatzea ahalbidetzen du bidaiaren bigarren aldian hobari bat aplikatuta, BGPk argitaratuko dituen salbuespenezko kasuetan izan ezik.

Aplikazio-eremua

Sisteman txertaturiko garraio moduetan erabil daiteke Creditrans garraio-titulua. BGPk argitaraturiko du Creditrans erabil daitekeen sarea.

Tituluaren zenbatekoa

Gutxieneko zenbateko batekin eta gehieneko saldo batekin ezartzen da tituluaren karga Barik txartelean, diru-zorroko gainerako tituluetan bezala. Zenbateko horiek ordenantza honi 1. eranskin gisa gehituriko dokumentuan bildu dira.

Karga

Creditrans titulua Barik txartelean karga daiteke tabako-denda, prentsa-kiosko, bestelako merkataritza-lokal, kutxazain automatikoen sare eta garraio sarearen instalazioetan (makina automatikoak, txartel-leihatila), baita Bilbobus eta Bizkaibusen kabina sarean, BGPren web orrian, BGPren aplikazioarekin mugikorrean eta une bakoitzean eraginkorra den edozein puntutan ere.

Karga eragiketa bat ezabatzeko agiri honetako 1. Eranskinean diru-zorro garraio-tituluetarako ezarri diren prozedurak eta beharkizunak bete behar dira.

Akatsa, kargaren ezabaketari dagokionez, erabiltzaileari egozteko moduko zioengatik gertatu bada erabiltzaileari honen aurreko paragrafoan aipatu diren beharkizunak betetzea ez ezik, aldi berean, BGPk tasa hau arautzeko duen zerga ordenantzan ezarri duen kudeaketa komisioa ordaintzeko eskatuko zaio.

Titulua erabiltzea

Saldoa bidaiak egin ahala kontsumitzen da. Bidaia bakoitzean aplikagarria den tarifa kasuan kasu egokia den garraio-motan eskumenak dituen erakundeak ezartzen du edo, hala denean, BGPk.

Garraio modu anitzerako titulua da, sistemari atxikitako garraio zerbitzuetan erabil daitekeena.Bidaiak egin daitezke zerbitzuotan, baina muga bat dago: baliozko titulua izan behar da, egingo den bidaiarako nahikoa saldoarekin, horretarako ezarritako baldintzen arabera.

Barik txartelak aukera ematen du, garraio mota jakin batzuetan, bidaia amaitzeko, beti ere erabiliko den Creditrans txartelak ezarrita dagoen gutxieneko saldoa badu, baina ez ibilbide hori egiteko nahiko, eta horrelakoetan saldo negatiboa eragingo du. Saldo negatiboa egingo den lehen kargan konpentsatuko da Baimenduko den gehieneko saldo negatiboa BGPk ezarriko duena izango da.

Modu bakoitzean ezarritako baldintzak eta baliozkotu beharra errespetatu behar da erabileran.Sartzean baliozkotzea (baliozkotze bakarra) edo sartzean eta irtetean (baliozkotze bikoitza).

Elkarrekin doazen hainbat pertsonak erabiltzea

Aipaturiko arau hori baliozkoa da soilik Creditrans txartel anonimoan sartuta badago.Baldin eta txartel pertsonalizatuak Creditrans titulua izango balu, Barik txartelaren titularrak baizik ezin izango luke erabili.

viajes por aplicación de dicha tarifa. Las tarifas cobradas para realizar los viajes son las establecidas por cada Institución Competente o por el CTB en su caso.

El CTB podrá aprobar tarifas del Creditrans común, que serán uniformes para los modos de transporte que decidieran adherirse a las mismas. Tales tarifas se publicarán en la correspondiente ordenanza fiscal del CTB reguladora de estas tasas.Los modos en que son aplicables estas tarifas se harán públicos por el CTB.

Puede utilizarse por cualquier persona siempre que esté contenido en una tarjeta anónima, por lo tanto es transferible.

Puede utilizarse por varias personas que viajen juntas con un mismo título siempre que esté cargado en una tarjeta anónima.

Si está incluido en una tarjeta personalizada no puede ser utilizado por varias personas juntas ni puede ser transferido, pudiendo ser únicamente utilizada por la persona titular de la tarjeta

Permite el transbordo, aplicándose una bonificación en la segunda etapa del viaje, salvo determinadas excepciones que serán hechas públicas por el CTB.

Ámbito de aplicación

El título de transporte Creditrans puede utilizarse en los modos de transporte integrados en este sistema. La red donde puede ser usado se hará pública por el CTB.

Importe del título

En la tarjeta Barik la carga del título está determinada, al igual que para el resto de los títulos monederos, con un importe mínimo y un saldo máximo. Tales importes se recogen en el documento unido a esta ordenanza como documento anexo 1.

Recarga

El título Creditrans puede cargarse en la tarjeta Barik en estancos, quioscos de prensa, otros locales comerciales, red de cajeros automáticos y en las instalaciones de la red de transporte (máquinas automáticas, taquillas), red de cabinas de Bilbobus y Bizkaibus, web del CTB, a través del móvil con la aplicación del CTB y cualesquiera otros puntos que estén operativos en cada momento.

Sólo se podrá proceder a la anulación de una operación de recarga de acuerdo con el procedimiento y requisitos establecidos para los títulos monedero en al anexo 1 de este documento.

Si el error estuviera motivado por causas imputables al usuario para la anulación de la recarga, se exigirá al usuario además del cumplimiento de los requisitos mencionados en el párrafo anterior el pago de una comisión de gestión que se estipula en la ordenanza fiscal del CTB reguladora de esta tasa.

Utilización del título

El saldo se consume a medida que se realizan los viajes. La tarifa aplicable en cada viaje es la establecida por la institución competente del modo de transporte correspondiente o por el CTB en su caso.

Es un título multimodal que se puede utilizar en todos los servicios de transporte adheridos al sistema. Se pueden realizar viajes en dichos servicios, con la limitación de disponer de título válido y con saldo suficiente para el viaje que se va a realizar, de acuerdo con las condiciones establecidas al efecto.

La tarjeta Barik posibilita que en determinados modos de transporte se culmine el viaje siempre que el Creditrans a utilizar tuviera un saldo mínimo establecido, pero no el suficiente para el trayecto a realizar en el mismo, generándose saldo negativo. El saldo negativo será compensado en la primera recarga que se efectúe. El saldo negativo máximo permitido será establecido por el CTB.

La forma de utilización debe respetar las condiciones establecidas en cada modo y la obligación de validación: Validación en entrada (validación única) o en entrada y salida (validación doble).

Utilización por varias personas que viajen juntas

Esta regla sólo es válida para el caso de que el Creditrans esté incluido en una tarjeta anónima. Si una tarjeta personalizada contuviera un título Creditrans la utilización del mismo sólo es posible para el/la titular de la tarjeta Barik.

cve: BAO-BOB-2017a039

Elkarrekin bidaiatzen duten hainbat pertsonak titulu berarekin baliozko dezakete.1. eranskinean ezarritakoa da elkarrekin doazen pertsonen gehieneko kopurua, baita sistemak pertsona horiek elkarrekin doazela ulertzeko gehieneko denbora ere.

Xede horietarako, pertsonen taldetzat joko da puntu berean bidaiaren etapari batera ekiten dion pertsonen multzoa.

Taldeko pertsonak geldialdi desberdinetan gera daitezke, bidaiatzen jarraitzen duenaren esku segitzen badu txartelak.

Garraio-aldaketak

Garraio zerbitzu desberdinen arteko aldaketak egin daitezke hala egitea ezartzen denean, eta bigarren etapan murrizketa aplikatuko da bidaia osoaren zenbateko osoan. Hobaria benetan erabil dadin, bidaia motaren arabera aldatzen diren denbora tarteetan eta baldintzetan egin behar da garraio-aldaketa. Hori guztia zehazki ageri da ordenantza honen 1. Eranskinean.

Hobaria, oro har, operadore guztientzat izango da berdina, eta deskontua aplikatuko da bidaiaren guztizko prezioan (2 etapetako tarifen batura).

Zenbait garraio zerbitzutan ez da aplikatzen arau orokor hori; BGPk argitaratuko ditu salbuespenok.

Erregulazioa

Ibilitako zona kopuruaren arabera aldatzen den tarifa duten garraio moduetan, sarrera eta irteera baliozkotu (baliozkotze bikoitza) behar da, aplikatu beharreko tarifa zehazteko xedez.

Irteeran txartelaren baliozkotzea gauzatu ezean, ezinezkoa da bidaiaren kostua zehaztea eta, beraz, erregulazioa aplikatuko da hurrengo baliozkotzean: aukerarik garestiena duen tarifa edo bidaiarik luzeena duen tarifa aplikatuko zaio.Gainera, garraio-aldaketaren ziozko hobarirako eskubidea galtzea dakar erregulazio horrek.

Irteeran txartela baliozkotzen ez bada baina irtetean baliozkotuz gero, ezinezkoa da bidaiaren kostua zehaztea eta, beraz, erregulazioa aplikatuko da hurrengo baliozkotzean: aukerarik garestiena duen tarifa edo bidaiarik luzeena duen tarifa aplikatuko zaio erabiltzaileari.Gainera, garraio-aldaketaren ziozko hobarirako eskubidea galtzea dakar.

Kasu bietan, hainbat pertsona elkarrekin badoaz, taldeko pertsona guztiei aplikatuko zaie.

Familia ugariaren profila (aurreko Hirukotrans titulua)

Baldin eta erabiltzailea familia ugarikoa bada, %20/%50eko deskontua aplikatu ahal izango zaie familia ugariak izatearen hobaridun guztiei (orokorra/berezia hurrenez hurren) Creditransen tarifetan, hain zuzen ere nahitaezkoa den garraio moduetan eta erakunde eskudunak hala erabakitzen duen modu orotan eta erakunde horrek ezarritako eran.

Izaera hori egiaztatu eta familia ugariaren profila sartu beharko dute Barik txartelean.

Familia ugariaren profilaren aplikazio-eremua eta gainerako erabilera-baldintzak Creditrans tituluaren berak izango dira, hainbat pertsonak elkarrekin erabiltzen dutenean izan ezik, titulu pertsonala eta transferiezina baita.

**5. artikulua.—*Gizatrans garraio-tituluaren funtzionamenduaren ezaugarriak eta baldintzak***

Ezaugarriak

BGPk emandako diru-zorro komuneko garraio-titulua da, besterenezina. Horren bidez, saldoa eskuratu eta erabiltzen da sisteman txertaturiko garraio moduetan bidaiatzeko, hobaria duen gizarte tarifa sozialarekin.

Erakunde eskudunak edo, hala badagokio, BGPk ezarritakoak dira bidaiak egiteko kobraturiko tarifak. BGPk Gizatrans erkidearen tarifak onar ditzake eta atxikitzea erabakitzen duten garraio moduetarako berdinak izango dira. Tasa-mota horiek arautzen dituen

Varias personas que viajen juntas pueden validar con el mismo título. El número máximo de personas juntas y el tiempo máximo para que el sistema considere que estas personas viajan juntas es el establecido en el documento anexo 1.

A estos efectos tendrán la consideración de grupo de personas, las que inicien la etapa del viaje juntas en el mismo punto.

Las personas del grupo pueden apearse en distintas paradas, siempre que el billete siga en posesión de la/s que continúen el viaje.

Transbordos

Se puede realizar transbordo entre distintos servicios de transporte cuando así se contemple, aplicándose en la segunda etapa una reducción del importe total del desplazamiento. Para que sea efectiva la aplicación de esta bonificación, el transbordo debe realizarse en un intervalo de tiempo, y en unas condiciones que varía según el tipo de viaje y que se detalla en el documento anexo 1 que se une a esta ordenanza.

Con carácter general, la bonificación será común para todos los operadores, con un descuento sobre el precio total del viaje (la suma de las tarifas de las 2 etapas).

En determinados servicios de transporte no opera esta regla general, estas excepciones se harán públicas por el CTB.

Regularización

En aquellos modos en los que exista tarifa variable en función del número de zonas recorridas resulta necesario validar a la entrada y a la salida (doble validación) con objeto de determinar la tarifa a aplicar.

En caso de no realizar la validación a la salida, no es posible determinar el coste del trayecto, por lo que en la siguiente validación se aplica una regularización consistente en la aplicación al usuario/usuaria de la tarifa que soporte el más gravoso de los casos y/o el que corresponda al viaje más largo. Además conlleva la pérdida del derecho a la bonificación por transbordo.

En caso de no realizar la validación a la entrada y realizarla a la salida, no es posible determinar el coste del trayecto, por lo que en la validación en salida se aplica una regularización consistente en la aplicación al usuario/usuaria de la tarifa que soporte el más gravoso de los casos y/o el que corresponda al viaje más largo. Además conlleva la pérdida del derecho a la bonificación por transbordo.

En ambos supuestos si viajan varias personas juntas estos criterios se aplicarán a todas las personas del grupo.

Perfil de familia numerosa (antiguo título Hirukotrans)

En el caso de que la persona usuaria ostente la condición de miembro de familia numerosa se podrá aplicar descuentos del 20/50% a los beneficiarios de la condición de familia numerosa (general/especial respetivamente) sobre las tarifas de Creditrans en los modos de transporte en los que sea obligatorio y en aquellos otros modos en los que así lo decida la entidad competente y en la forma en que ésta lo establezca.

Deberán acreditar esta condición e incluir en la tarjeta Barik el perfil de familia numerosa.

El resto de las condiciones de uso y el ámbito de aplicación del perfil de familia numerosa serán los mismos que los del título Creditrans, a excepción de la utilización por varias personas juntas al tratarse de un título personal y no transferible.

**Artículo 5.—*Características y condiciones de funcionamiento del tÍtulo de transporte Gizatrans***

Características

Título de transporte monedero común personalizado, no transferible emitido por el CTB por el que se adquiere y dispone de un saldo para viajar en los distintos modos de transporte adheridos al sistema, a una tarifa social bonificada.

Las tarifas cobradas para realizar los viajes son las establecidas por cada Institución Competente o por el CTB en su caso. El CTB podrá aprobar tarifas de Gizatrans común, que serán uniformes para los modos de transporte que decidieran adherirse a

cve: BAO-BOB-2017a039

BPGren zerga-ordenantzan argitaratuko dira tituluaren tarifak. Tarifak aplikatzeko moduak BGPk iragarriko ditu.

Onuraduna izatea egiaztatzen duen agiria behar da, Barik txartela bera, garraio-titulu hau erabiltzeko. Barik txartela bera da egiaztagiria, horretarako pertsonalizatua.

Onuradunak

Gizatrans tituluaren onuradun izateko jarraian azalduko diren inguruabarretatik edozein bete behar da eta tramitazioa egiten den unean jarraian xehekatu den dokumentazioa aurkeztu behar da. Tramitazio hori titularrak era presentzialean egin behar du bezeroari arreta eskaintzeko bulegoetan:

— 65 urtetik gorakoa izatea (NAN originala, pasaportea edo agintari eskudunak emandako bestelako edozein identifikazio-agiri ofizial).

— Baliaezintasun handia edo erabateko baliaezintasuna (horri buruzko egiaztagiri original ofiziala).

— %65eko ezintasuna edo handiagoa (horri buruzko egiaztagiri original ofiziala).

Erabiltzaile titulu horren jabea izan daiteke soilik Gizatransen onuraduna izatea dakarren inguruabarra gertatzen denean.

Egoerak aldatuko balira eta, ondorioz, beste Barik txartel mota bat erabili beharko balitz, erabiltzaileak txartel berria erosi beharko du eta zenbatekoa ordaindu ere bai.

Giza txartela lortzeko baldintzak izan gabe erabiltzen bada, iruzurtzat joko da eta ordenantza honek 30. artikuluan aurrez ikusitakoarekin bat ekingo zaio.

Aplikazio-eremua

Sisteman txertaturiko garraio moduetan erabil daiteke Gizatrans garraio-titulua.BGPk argitaraturiko du Gizatrans erabil daitekeen sarea.

Tituluaren zenbatekoa

Diru-zorroko titulua da, bidaiatzeko saldoa eskuratzeko balio duena.

Gutxieneko zenbateko batekin eta gehieneko saldo batekin ezartzen da tituluaren karga Gizatransen Barik txartelean, diru-zorroko gainerako tituluetan bezala.

Zenbateko horiek ordenantza honi 1. eranskin gisa gehituriko dokumentuan bildu dira.

Karga

Gizatrans titulua Barik txartelean karga daiteke tabako-denda, prentsa-kiosko, bestelako merkataritza-lokal, kutxazain automatikoen sare eta garraio sarearen instalazioetan (makina automatikoak, txartel-leihatila), baita Bilbobus eta Bizkaibusen kabina sarean, BGPren web orrian, BGPren aplikazioarekin mugikorrean eta une bakoitzean eraginkorra den edozein puntutan ere.

Gizatrans titulu baten karga eragiketa bat ezabatzeko agiri honetako 1. Eranskinean diru-zorro garraio-tituluetarako ezarri diren prozedurak eta beharkizunak bete behar dira.

Akatsa, kargaren ezabaketari dagokionez, erabiltzaileari egozteko moduko zioengatik gertatu bada erabiltzaileari honen aurreko paragrafoan aipatu diren beharkizunak betetzea ez ezik, aldi berean, BGPk tasa hau arautzeko duen zerga ordenantzan ezarri duen kudeaketa komisioa ordaintzeko eskatuko zaio.

Titulua erabiltzea

Bidaiak egin ahala kontsumitzen da saldoa. Erakunde eskudun bakoitzak edo bere kasuko BGPa ezarria izango da bidaia bakoitzean kobratuko den tarifa.

Modu anitzeko titulua da, garraio-sareari atxikitako garraiobide guztietan erabil daitekeena, betiere muga hauek kontuan hartuta: baliozko titulua izan behar du eta egingo den bidaia ordaintzeko saldo nahikoa izan behar du, horretako ezarri diren baldintzei jarraiki. Oro har, ez du garraio-aldaketagatiko hobaririk baliatzeko eskubidea sorrarazten, 1. eranskinean jasotakoak izan ezik.

las mismas. Tales tarifas se publicarán en la correspondiente ordenanza fiscal del CTB reguladora de estas tasas. Los modos en que son aplicables estas tarifas se harán públicos por el CTB.

Precisa de un carnet acreditativo, la propia tarjeta Barik, de la condición de beneficiario para utilizar este título de transporte. El carnet acreditativo es la propia tarjeta Barik personalizada al efecto.

Beneficiarios

Para ser beneficiario del Gizatrans hay que hallarse en cualquiera de las siguientes circunstancias, debiendo aportar la documentación que se detalla a continuación en el momento de la tramitación, que se realizará presencialmente por el titular en las oficinas de Atención al cliente:

— Ser mayor de 65 años (documento original DNI, pasaporte u otro documento oficial de carácter identificativo expedido por la autoridad competente).

— Gran invalidez o invalidez absoluta (documento oficial original acreditativo de la misma).

— Discapacidad igual o superior al 65% (documento oficial original acreditativo de la misma).

La persona usuaria sólo podrá ser acreedora de este título mientras concurra la circunstancia que motiva el acceso a la condición de beneficiario de Gizatrans.

Si hubiera un cambio de circunstancias, que obligara al uso de otro tipo de tarjeta Barik, el usuario deberá adquirir la nueva tarjeta abonando su importe.

La utilización de una tarjeta Giza sin concurrir las circunstancias que dan acceso a la condición para su obtención se considerará fraude, procediéndose conforme a lo previsto el artículo 30 de la presente ordenanza.

Ámbito de aplicación

El título de transporte Gizatrans puede utilizarse en los modos de transporte integrados en este sistema. La red donde puede ser usado será hecha pública por el CTB.

Importe del título

Es un título monedero mediante el que se adquiere un saldo para viajar.

En la tarjeta Barik la carga del título Gizatrans está determinada, al igual que para el resto de los títulos monederos, con un importe mínimo y un saldo máximo.

Tales importes se recogen en el documento unido a esta ordenanza como anexo 1.

Recarga

El título Gizatrans puede cargarse en la tarjeta Barik en estancos, quioscos de prensa, otros locales comerciales, red de cajeros automáticos y en las instalaciones de la red de transporte (máquinas automáticas, taquillas), red de cabinas de Bilbobus y Bizkaibus, web del CTB, a través del móvil con la aplicación del CTB y cualesquiera otros puntos que se pudieran habilitar en el futuro al efecto.

Sólo se podrá proceder a la anulación de una operación de recarga del título Gizatrans de acuerdo con el procedimiento y requisitos establecidos para la anulación de títulos monederos en el anexo 1 de este documento.

Si el error estuviera motivado por causas imputables al usuario para la anulación de la recarga, se exigirá al usuario además del cumplimiento de los requisitos mencionados en el párrafo anterior el pago de una comisión de gestión que se estipula en la ordenanza fiscal del CTB reguladora de esta tasa.

Utilización del título

El saldo se consume a medida que se realizan los viajes. La tarifa que se cobra en cada viaje la establece cada Institución Competente o el CTB en su caso.

Es un título multimodal que se puede utilizar en todos los modos de transporte integrados en el sistema, con la limitación de tener título válido y con saldo suficiente para el viaje que se va a realizar, de acuerdo con las condiciones establecidas. En general no genera derecho a la bonificación de transbordo, salvo los indicados en el Anexo 1.

cve: BAO-BOB-2017a039

Barik txartelak ahalbideratzen duenez, zenbait garraio modutan buka daiteke bidaia, betiere erabili beharreko Gizatransek gutxieneko saldo ezarria badu, baina ez egin beharreko ibilbiderako nahikoa. Hala, saldo negatiboa sortuko da.Egingo den lehen kargan konpentsatuko da saldo negatiboa.BGPk ezarria izango da baimendutako gehieneko saldo negatiboa.

Modu bakoitzean ezarritako baldintzak eta baliozkotu beharra errespetatu behar dira erabileran.Sartzean baliozkotzea (baliozkotze bakarra) edo sartzean eta irtetean (baliozkotze bikoitza).

Familia ugariaren profila (aurreko Gizatrans F20 eta Gizatrans F 50)

Baldin eta erabiltzailea familia ugarikoa bada, %20/%50eko deskontua aplikatu ahal izango zaie familia ugaria izatearen hobaridunak diren guztiei (orokorra/berezia hurrenez hurren) Gizatransen tarifetan, hain zuzen ere nahitaezkoa den garraio moduetan eta erakunde eskudunak hala erabakitzen duen modu orotan eta erakunde horrek ezarritako eran.

Izaera hori egiaztatu eta familia ugariaren profila sartu beharko dute Barik txartelean.

Gizatrans tituluaren berak izango dira familia ugariaren profilerako ezarritako erabilera-baldintzak eta aplikazio-eremua.

V. KAPITULUA

## BARIK TXARTELEAN TXERTATURIKO ALDI BATERAKO PARTZUERGO-TITULUAK

### 6. artikulua.—*Aldi baterako tituluak*

Epe-tituluetan erabiltzaileak bidaiatzeko eskubidea erosten du, modu mugatuan edo mugagabean, denbora zehatzez berak kontratatutako zonetarako. Horrez gain, modu bakarrerako tituluen kasuan, aldez aurretik, titulua erosten duenean, hautatu beharko du garraio modua.

Epe-titulua honakoen arabera konfiguratuko da: denborara, hautatutako zonak, erabil daitezkeen garraio moduak, tituluaren onuradunak eta izaera mugatua edo mugagabea.

### 7. artikulua.—*Epeko bidaia-tituluen funtzionamenduaren ezaugarriak eta baldintzak*

### 7.1. artikulua.—*Garraio-modu desberdinetan erabiltzeko epeko bidaia-tituluak bidaia mugagabeekin*

7.1.A) *30 egunerako epe-tituluak, bidaia mugagabeekin, orokorra edo gazteentzat*

30 egunerako epe-tituluak, garraio-modu desberdinetan erabiltzeko, bidaia mugagabeekin, orokorra edo gazteentzat. Ezaugarriak

Epeko garraioaren partzuergo-titulua, BGPk emandakoa, ondoz ondo 30 egunez baliozkoa da, erabiltzaileak baliozkotze data hautatzen duenetik. Tarte horretan modu mugagabean bidaia daiteke tituluan erositako garraio bitartekoetan eta hautatutako zonetan. Tituluaren zenbatekoa aldez aurretik erabiltzaileak kontratatzen duen zonaren eta, hala badagokio, bere profilaren araberakoa da. Hautatutako zonek elkarren ondokoak izan beharko dute.

Titulua pertsonala eta besterenezina denez, beharrezkoa da Barik txartel pertsonalizatua (Kide edo Giza) izatea titulua eskuratu ahal izateko.

Epe-titulu mugagabeei dagokienez, bi mota daude taldeari erreparatuz: oro har, jendearentzat eta Bizkaian erroldatuak egonik, 26 urtetik beherako gazteentzat. Bidai Oro eta Gazte Oro deritze, hurrenez hurren.

Nahi beste bidaia egin daitezke ondoz ondoko 30 egunetan, titulua baliozkotzen den egunetik zenbatzen hasita, hautatutako eremuetako abialeku eta helmugen artean.

Tituluak, gutxienez, gune bakarrarentzat balio du eta, gehienez, bost gunerentzat, eskuratzen denean erabiltzaileak zer hautatzen duen. Hala, tarifaren zenbatekoa aukeratutako guneen araberakoa izango da.

La tarjeta Barik posibilita que en algunos modos de transporte se culmine el viaje siempre que el Gizatrans a utilizar tuviera el saldo mínimo exigido, pero no el suficiente para el trayecto a realizar, generándose un saldo negativo. El saldo negativo será compensado en la primera recarga que se efectúe. El saldo negativo máximo permitido será establecido por el CTB.

La forma de utilización debe respetar las condiciones establecidas en cada modo y la obligación de validación: Validación en entrada (validación única) o en entrada y salida (Validación doble)

Perfil de familia numerosa (antiguos títulos Gizatrans F20 y Gizatrans F50)

En el caso de que la persona usuaria ostente la condición de familia numerosa se podrá aplicar descuentos del 20/50% a los beneficiarios de la condición de familia numerosa (general/especial respetivamente) sobre las tarifas de Gizatrans en los modos de transporte en lo que sea obligatorio y en aquellos otros modos en los que así lo decida la entidad competente y en la forma en que ésta lo establezca.

Deberán acreditar esta condición e incluir en la tarjeta Barik el perfil de familia numerosa.

El resto de las condiciones de uso y ámbito de aplicación serán las mismas para el perfil de familia numerosa que las del título Gizatrans.

CAPÍTULO V

## TÍTULOS DE TRANSPORTE CONSORCIADOS DE TIPO TEMPORAL EN LA TARJETA BARIK

### Artículo 6.—*Títulos temporales*

Los títulos temporales son aquellos en los que el usuario adquiere el derecho a viajar ya sea limitada o ilimitadamente durante un tiempo determinado en las zonas que él mismo ha contratado y, en el caso de los títulos monomodales, para el modo de transporte que ha preseleccionado en el momento de la compra del título.

La combinación del período de tiempo, de las zonas seleccionadas, de los modos de transporte que pueden utilizarse, los beneficiarios del título, y su carácter limitado o ilimitado configurará el tipo de título temporal.

### Artículo 7.—*Características y condiciones de funcionamiento de los tÍtulos de transporte temporales*

### Artículo 7.1.—*Títulos de transporte temporales multimodales de viajes ilimitados*

7.1.A) *Títulos temporales de 30 días de viajes ilimitados general/joven*

Características de los títulos temporales de 30 días multimodales de viajes ilimitados general/joven

Título de transporte temporal consorciado emitido por el CTB, válido para 30 días consecutivos a partir de la fecha de inicio de validez elegida por el usuario, tiempo en el que se puede viajar ilimitadamente en las zonas escogidas en los modos de transporte adheridos al título. El importe del título dependerá de las zonas contratadas previamente por el usuario y en su caso, de su perfil. Las zonas escogidas deberán ser contiguas.

Es personal e intransferible requiriendo por tanto para su adquisición la tenencia de una tarjeta Barik personalizada, ya sea Kide o Giza.

Existen dos tipos de títulos temporales ilimitados según el colectivo al que se destinen: los dirigidos al público en general y los dirigidos a los jóvenes menores de 26 años empadronados en Bizkaia, que se denominarán Bidai Oro y Gazte Oro Gazte, respectivamente.

Es válido para un número ilimitado de viajes durante 30 días consecutivos a partir de la fecha de inicio de validez del título entre los orígenes y destinos de las zonas seleccionadas.

Puede ser válido para un mínimo de una zona o un máximo de cinco zonas según la elección del usuario en el momento de la compra, dependiendo su tarifa del número de zonas elegidas.

cve: BAO-BOB-2017a039

Erabiltzaileak bidaian egindako gune guztietarako baliozko epe-titulua erosi beharko du. Nahiz eta bidaia zona berean hasi eta amaitu, hainbat gune desberdin igarotzen badira, gune guztietarako baliozko titulua erosi beharko da.

Epe-tituluak, garraio-modu desberdinetan erabiltzeko, bidaia mugagabeekin, orokorra edo gazteentzat. Aplikazio-eremua

Garraio modu desberdinetan mugarik gabe ibiltzeko epe-titulu orokorra hautatzen diren garraio-modu eta guneen arabera erabili ahal izango da. Hasieran 1. eranskinean adierazitako operadoreetan erabiltzea aurrez ikusia dago, baina titulu horiei operadore berriak atxikitzen zaizkien neurrian, titulu mugagabeak erabiltzeko sarea BGPk jakinaraziko du.

Bidaia mugagabeekin garraio-modu desberdinetan erabiltzeko epe-tituluen onuradunak

Bidaia mugagabeekin garraio-modu desberdinetan erabiltzeko epe-titulu orokorra, Bidai Oro izenekoa, edozein pertsonarentzat da eta ez dago adin-mugarik, ezta baldintza berezirik ere, Barik txartel pertsonalizatua izatea salbu.

Bidaia mugagabeekin gazteak garraio-modu desberdinetan erabiltzeko epe-titulua, Gazteo Oro izenekoa, 26 urtetik beherako pertsonentzat da, Bizkaiko edozein udalerritan erroldatuta badaude.

Epe-titulu honek tituluaren indarraldian erositako garraio-moduetan eta guneetan bidaien kopuru mugagabea egitea ahalbidetzen duenez, pertsonala eta besterenezina da. Beraz, titularrak txartel pertsonalizatua (Kide edo Giza) izan beharko du.

Bidaia mugagabeekin gazteek garraio-modu desberdinetan erabiltzeko epe-titulua erosteko, erabiltzaileak titulua baliozkotzen duen egunean gazteari dagokion baldintza bete beharko du.

Epe-tituluak, garraio-modu desberdinetan erabiltzeko, bidaia mugagabeekin, orokorra edo gazteentzat. Zenbatekoak

Bidaia mugagabeekin garraio-modu desberdinetan erabiltzeko epe-tituluen prezioa aldakorra da, erostean hautatutako guneak eta erabiltzailearen profila kontuan hartuta.

Tarifak BGPk zehaztuko ditu eta tasa-mota horiek arautzen dituen BPGren zerga-ordenantzan argitaratuko dira.

Epe-titulu bakoitzak familia ugariaren beherapena izan dezake, baldin eta erabiltzaileak indarreko familia ugariaren profila aktibaturik badauka Barik txartelean. Xede horretarako, FUaren profilak titulua baliozkotzen den egunean indarrean egon beharko du.

Kargatzea

Erabiltzaileak, profilaren arabera (orokorra edo gaztea), Barik txartelean karga dezake Bidai Oro edo Gazte Oro garraio-modu desberdinetan erabiltzeko epe-titulua eta erostean tituluaren baliozkotze data zehaztu beharko du, baita erosi nahi duen guneen kopurua ere.

Garraio-modu desberdinetan erabiltzeko tituluan (orokorra/gaztea) baliozkotutako guneen konbinazio eskaintza erabiltzaileak hautatuko du, baina aldameneko zonak izan beharko dute eta gehienez 5, gainera.

Erabiltzaileak bidaiari dagozkion guneak kontuan hartuta, epe-titulua hautatu eta erosiko du.

Bidai Oro garraio-modu desberdinetan erabiltzeko titulua erosi nahi bada, Barik txartel pertsonalizatua (Kide edo Giza) ezinbestekoa da.

Gazte Oro gazteak garraio-modu desberdinetan erabiltzeko titulua erosi nahi bada, Barik txartel pertsonalizatua (Kide edo Giza) nahitaezkoa da, 26 urtetik behera izateaz eta Bizkaiko Lurralde Historikoko edozein udalerritan erroldatua egoteaz gain.

Garraio-modu desberdinetan erabiltzeko epe-titulua Barik txartelean karga daiteke kanpoko salmenta sarean (tabako-dendak, prentsa-kioskoak, bestelako merkataritza-lokalak), titulua erabil daitekeen garraio sarearen instalazioetan, tituluari atxikitako garraio moduen kabina sarean, BGPren web orrian, BGPren aplikazioa-

El usuario deberá comprar un título temporal válido para todas las zonas recorridas en sus viajes. Aunque el viaje empiece y culmine en la misma zona, si éste discurriera por varias zonas distintas deberá adquirirse un título válido comprensivo de todas las zonas por las que se vaya a transitar.

Ámbito de aplicación del los títulos temporales multimodales de viajes ilimitados general/joven

El título temporal multimodal general ilimitado puede utilizarse en los modos de transporte adheridos al título y zonas para los que se haya adquirido. Inicialmente está previsto su utilización en los operadores indicado en el Anexo 1, si bien a medida que se incorporen nuevos operadores a estos títulos la red donde se puede usar estos títulos ilimitados será hecha pública por el CTB.

Beneficiarios títulos temporales multimodales de viajes ilimitados

El título temporal multimodal de viajes ilimitado general, denominado Bidai Oro, está dirigido a cualquier persona en general, no existiendo límites de edad ni ningún requisito específico salvo el de tener una tarjeta Barik personalizada.

El título temporal multimodal de viajes ilimitado joven, denominado Gazte Oro, se trata de un título dirigido a personas menores de 26 años que estén empadronados en cualquier municipio de Bizkaia.

Dado que se trata de un título temporal que permite durante el periodo de vigencia del título la realización de viajes ilimitados en los modos de transporte y zonas adquiridas, tiene carácter personal e intransferible, siendo necesario que el titular tenga una tarjeta personalizada ya sea Kide o Giza.

Para la adquisición de un título temporal multimodal ilimitado joven es necesario que el usuario tenga el perfil con la condición de joven el día de inicio de validez del título.

Importe de los títulos temporales multimodales de viajes ilimitados general/joven

El precio de los títulos temporales multimodales de viajes ilimitados variará en función de las zonas seleccionadas en la adquisición del mismo y en su caso del perfil del usuario.

Las tarifas las determinará el CTB y se publicarán en la correspondiente ordenanza fiscal del CTB reguladora de estas tasas.

Cada uno de estos títulos temporales podrá tener el descuento de familia numerosa que corresponda, si el usuario tiene un perfil vigente de familia numerosa incluido y activado en su tarjeta Barik. A estos efectos el perfil de FN deberá estar vigente el día de inicio de validez del título.

Recarga

El usuario podrá cargar en la tarjeta Barik el tipo de título temporal multimodal Bidai Oro, o Gazte Oro según su perfil (general o joven), debiendo en el momento de la compra determinar la fecha de inicio de validez del título y el número de zonas que va a adquirir.

La oferta de combinaciones de zonas válidas en el título multimodal general/joven será la elegida por el usuario, siendo siempre zonas contiguas y con un máximo de 5 zonas.

El usuario deberá seleccionar y comprar el título temporal que corresponda a las zonas por las que discurrirán sus viajes.

Para la compra de un título multimodal Bidai Oro, se necesitará una tarjeta Barik personalizada (Kide o Giza).

Para la compra de un título multimodal joven, Gazte, se necesitará una tarjeta Barik personalizada (Kide o Giza), ser menor de 26 años y estar empadronado en cualquier municipio del Territorio Histórico de Bizkaia.

El título temporal multimodal podrá cargarse en la tarjeta Barik en la red externa de venta atendida (estancos, quioscos de prensa, otros locales comerciales), en las instalaciones de la red de transporte donde sea utilizable el título, en la red de cabinas de los modos de transporte adheridos al título, en la web del CTB, a través de

cve: BAO-BOB-2017a039

ren bitartez gailu mugikorretan eta ordenantza hau onartu ondoren, gaitzen den edozein puntutan.

Bidai Oro eta Gazte Oro epe-tituluak ondoz ondo 30 egunez baliozkotuko dira, titulua balidatzen den datatik zenbatzen hasita. Ezin izango da epe-titulurik eskuratu 30 eguneko aldiaren zati batean erabiltzeko.

Garraio modu desberdinetarako gazteentzat epe-titulua ezin izango da kargatu txartelaren iraungipen-data epe-tituluaren iraungipen-data baino lehenagokoa bada.

Garraio-modu desberdinetan erabiltzeko tituluak, Bidai Oro edo Gazte Oro bertsioan, BGPk aldez aurretik kargatzeko xedatzen dituen arauak jarraituko ditu. Hala, Barik txartel berean bi epe-titulu egon daitezke, bata eraginkorra eta bestea erreserban.

Gazteak garraio-modu desberdinetan erabiltzeko titulua eskuratu ahal izango da epe-tituluaren hasierako baliotasun datan erabiltzaileak 26 urte beteta ez badauzka, nahiz eta, epe-tituluaren baliotasunaren barruan, erabiltzaileak gazte izaera galdu.

Familia Ugariaren (FU) profilak dakarren hobariaz onuradun izateko, titulua baliozkotzean indarrean egon beharko du, epe-tituluaren indarraldian erabiltzaileak baldintza hori galdu arren.

Garraio-modu desberdinetan erabiltzeko epe-titulua, orokor edo gazte bertsioetan, ezin izango da kargatu Barik txartelaren diru-zorroaren saldoa negatiboa bada edo, txartela erregularizatu behar dela, erregularizazioa ordaintzeko saldo nahikorik ez badauka.

